

# ZER

**BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ\***

234n. zenbakia  
azilla 1998



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA  
KULTURA SAILA  
LAGUNTZAILLE



**LENDAKARI ARDANTZA!  
AGUR!**

# EUSKALERRIAN EUSKERAZ

II.E. 

UY'

1998-99 IKASTURTEA

OGEITAMAIKAGARRENA  
BIZKAIERAZ

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**Egunak:** ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN

**Orduak:** GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

**Ordaña:** 18.000 PEZETA

**Izena emoteko-tokia:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - URRUTIZKIÑA 423 53 22  
BILBAO

31<sup>2</sup> CURSO DE EUSKERA BIZKAINO

3 NIVELES Y CONVERSACION

**Días:** LUNES, MIÉRCOLES Y VIERNES, 0 MARTES Y JUEVES

**Horas:** MAÑANA, TARDE Y NOCHE

**Curso completo:** 18.000 PESETAS

**Inscripciones:** EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2 - TELEFONO 423 53 22  
BILBAO

LAGUNTZAILEA

COLABORA

< Bilbao Bizkaia Kutxa

## BAKERAKO URRATSA

Aspaldion itxaropena sortu da gure Euskalerrian. Alde batetik izukeriaren gelditzea agertu dalako eta bestetik bakerako lan egin-gurean gure errigintzarako alderdiak eta Euskalerriko indar biziak alkartu diralako.

Or agertzen dan bakerako bidean argi ikusten dira oztopo batzuk, batez be euskaldunak ez diran alderdiak euren ortzak erakusten dabezelako: ez dabe nai Euskalerria aske izaterik, euren buztarriean sartuta guk jarraitzea nai dabe.

Argitu daigun lenengo Euskalerria esaten dogunean zer ulertzen dogun: Ez gaur aldarrikatzen clan EUZKADI, izen onek bere barruan daroaz Bizkaia, Gipuzkoa ta Araba, ez Naparroa ta iparraldeko iru lurraldeak. Baiña Euskalerria gure adimenean eta biotzetan beti izan da "zazpiak bat", Euskalerriko zazpi lurraldeak bat eginda. Egia esan, naparrak, euren burua euskaldun zomatzen dabenak, ez dabe entzun gura iparraldeko Be-Nabarra ta Egoaldeko Nabarra lurralde bi diranik. Gauzea olan begiratu ezker, "seirak bat" esan bearko genduke. Baiña jarraitu dagigun "zazpiak bat" esaten.

Euskalerria orrelan ulertzen ez ba'da, egingo da bakeantzeko zerbait, baiña barru-barruan egarri aundi bat gertzen da eta orrelan egiten dan bakea ez da ona, ez da iraunkorra.

Nondik asi bear dogu ba, benetako bakea egiteko?

Nik auxe esondatuko neuke: Lenengo egin bear dana auxe da: Madrilgo ta Paris'eko agintariak edo euren ordezkariak alkartu eta onelako zerbait adierazo mundu guztia-ri:

"Frantze ta España'ren bitartean aberri bat dago, Euskalerria: Iru lurralde iparraldean, Frantze'n, eta lau egoaldean, gaur Españan. Euskalerria benetako aberri bat izan arren, gaur zati bi eginda daukagu, erdian gure arteko muga ipiñita, baiña gaurtik aurrera, eta bakea egiteko bide lez, auxe betetea nai dogu: Iparraldeko ta egoaldeko eus-

kaldunak alkartu egin bear doguz, aberri lez dagokien bizi-tza lortu dagien. Alkartasun ori lortzeko, aide bietako jakintza, ekonomia, langintza, bideak, barri-bideak eta abar alkartu egin bear dira eta guk, Frantze ta España'k, alegiña egingo dogu orrelan alkartzen dan aberriak aurrera egin dagian. Ori lortzen danean, aberri orreri eritxi-batze baten bidean itaun bat egingo dautsagu. "referendun" baten bidez: Aberri lez, nortasuna ta alkartasuna daukazuezan ezker, esan egizue: Zelan nai dozue aurrerantzean zuen bizi-tza, ala oso-osoan zeuen buruen jabe izanda, ala Frantze'gaz edo España'gaz bat eginda? Gero erantzun orren ondorena kontuan artuko dogu eta Euskalerriak askatasun osoa eskatzen ba'dau, Europa Batuan laterri bat izan leiteke, eta bigarren bidea artzen ba'dabe Euskalerriak bere autonomia izango leuke".

Amets ori egi biurtuko ba'litzake, gero Iparraldeko ta Egoaldeko alderdi Euskaldunak izango leukee eskubidea arazoak bideratzeko: Zelako nortasuna lurralde bakoitzak, zelako alkartasuna, zelako agintaritzta, zelako ekintzak izkuntza, jakintza, langintza ta ekonomi-arloetan eta abar. Euren esku izango leukeez Europa'gazko artu-emonak...

Ori lortzea guztiz gauza gatxa da. Ez da ulertzen zergaitik oker-begiz begiratzen gaituen eta gero eurakandik bananduta eta geure buruaren jabe izaterik nai ez daben.

Bake osoa lortzeko bidea ezin daiteke izan España'ko Laterri-Gegea. Aurrerago dago aberria, ezin izan daiteke gaurko Araudiaren bidea, onek iru lurralde baiño begiratzten ez dauzalako.

Bake nai ba'dogu, guztiok izan bear dogu ausartak eta emon bear doguzan urratsak emon, eta bakearen ondorena poza izango da, poza gure erriarentzat, poza inguruko errirentzat, poza munduarentzat, eta gaur alkar ulertu eziñik gabiltzan Euskalerria, iparraldeko laterria eta egoaldekoa, alkar maitasunean bizi izango gara.

**Olazar'tar Martin'ek**

## ZER ALDIZKARIA

**Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (2.500 pezeta) kontu onetan:**

**EUSKERAZALEAK**

**BILBAO BIZKAIA KUTXA**

**Bilbao, 2095 0000 7 4 20.000 8961-5**

**Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!**

**Ebagi orri onetan txarteltxu au eta eroan BBK'ra eta ordaindu 2.500 pezeta. Ez dozu ezer be idatzi bear.**

**Baiña aztu barik esan Kutxan zeure izena eta zeure erriarena.**

**Eskerrik asko!**

---

## GURE GAITZEN SUSTRAIAK

---

### (1839) Urrillak 25

Gure Fueroa eta Askatasunak orduantxe galdu genduzen 1839'aren 25'eanean, María Kristina Erregeordekoak Lege bat zabaldu zuen egunean.

Onela zion Legearen Lenengo Artikuloak:

"Se confirman los Fueros de las Provincias Vascongadas y Navarra, sin perjuicio de la unidad política de la Monarquía..".

Arrezkero onela bizi gara "sin perjuicio de la unidad política de España". 1978 urteko Kostitutzioak esaten dau, gudaroste espainolak gordeko dauela "unidad política" ori...

### Zergaitik izan zan María Cristina'ren Legea?

Karlostarren guda izan zan bide: Carlos María Isidro, Fernando Bigarrenaren anaiak, bere eskubidearen alde jeiki zan Isabel II, Fernandoren alabaren, aurka. Berak zituela eskubideak, alegia, errege izateko, eta ez Isabel'ek...

Bitarte orretan bazegoen, Cadiz'eko 1812'garrengo Kostitutzioaren ondoren, Elizaren eta Euskal Fueroen aurkako amorrua.

Amorru ura Frantzia'ko Iraultzatik zetorren: Onak kendu zitun Be-naparroako Lege Biltzarra eta euskaldunen Fuero eta Askatasun guztiak, Frantzia osoa Departamentuetan zatiturik: Laburdi, Zuberoa, Bearnarroa eta Bearn, laurak Departamentu batean ipiñi zitun. Eta beste bazter guztietan jokaera berdiña erabili zuen.

Orren antzera egingo dute geroago España'n ere: Euskalerrria probintzietan banatu, beste probintzi espainiolen antzera: Araba, Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroa, guztiak probintzi espainiolekin berdinduta.

Eliza eta Foruen aurkako jokabide oiek urduritasuna sortu zuten Euskalerrri osoan, eta Carlos María Isidro'k bere iraultza mundu zabalera "Dios y Fueros" ikurrarekin zabaldu zuenean, orduan euskaldun asko jeiki zan bere aide, burrukarako prest.

Burruka ustela gertatu zan eta Maroto, Karlista guztien Buruak saldukeria egin zuen, Espartero Liberal Generalarekin bat eginda, Bergara'ko Besarkada aretan (Convenio de Vergara)... Saldukeri orren susmoa artuta zeukaten batalloi giputz eta bizkaitarrek eta ez zuten armarik lagatzerik nai.

Une aretan, Espartero berak, itza artuta, onela esan zien: "Iñoiz iñork Fueroen aurka ezer egingo ba'lu, neure ezpata onek zainduko ditu Fueroak danen aurka". Itz oien ondoren laga zituzten euren armak; baña, susmoa ez zan era bat aldendu...

Urrillaren 25'eanean, Urtea 1839, gertatu zan besarkada negargarri ura. Andik gutxira, 1840'eanean, iraultza baten bidez bota zuten María Cristina Errege-ordekoa eta bere lekuan Espartero Jenerala ipiñi zuten, España'ren Jaun da Jabe. Une aretan bertan ematen du lege bat, Euskalerrria beste España'ko probintziekin bat egiñik bai gobernuko azaroetan, bai administrazioan eta baita justizian ere. Mugak aldatzen ditu Ebro'tik Pirinee-mendietara eta itxasoko portuetara, Madrid'en mendeko.

### Bigarren Karlistada

Euskaldun batalloiak iruzurtzea eta engañatzeak ondorenak ekarri zitun. Isabel II'garrena, amairu urterekin eskondu zuten bere lengusu Francisco Asis de Borbón infantearekin. Bere ama María Cristina Frantzia'ra bialdu zuten, gobernu osoa Espartero'ren eskuetan utzirik.

Orduan España'ko Konstituzio bernia eratu zuten 1845'eanean Espartero'k egiiiiko Euskalerrri'ko kalte guztiak onarturik.

Urteak pasa ziran eta 1868' an Erregin Isabel II bota eta Errepublikak sortu zuten. Frantzia'ko Iraultzaren espiritu txarra areagotu egin zan, Erljio eta Foruen aurka. Eta euskaldun askok armak artu zituzten eskuetan aurreko karlisten gerra artan bezela, beste Don Carlos de Borbón batek, VII'garrenak, beste eskubideak zaintzeko, dei bat egin zienean, Fuero eta Erljioaren aide. 1872'garren Apirillaren 21'teko deia.

España'ko Konstituzioaren aurkako burruka.

Lenengo gerratean Zumalakarregi eta bigarreanean Santa Kruz izan ziran euskaldunik ospetsuenak.

Bergara'koa baiño negargarriagoa izan zan Amorebieta'ko itzarmena eta saldukeri aundiagoa... Lau urtez Euskalerrria ondatu ta gero, amaitu zan 1876'garren urtean, karlistek sortutako gerra.

Naaste aretan, Serrano Jeneralak, bere gudarosteakin, Madrid'en Errepublikak kendu eta bere ordezkari Alfonso XII, Isabel II'ren semea, ipiñi zuen erregeaulkian. 28 urterekin il zan eta bere emazte María Cristina de Hamsburgo'koak semea izan zuen, Alfonso XIII'garrena.

María Cristina au ere Errege-ordezko izan genduen. Amasei urterekin ezkondu zuten Alfonso XIII 1902'an Victoria de Battenberg, Ingalaterra'ko Erregearen illobarekin.

1923'an Primo de Rivera Kataluniako Jeneralak, kolpe baten bidez, Espaiña'ko Gobernua here esku gogor artzen du Abertzale agerpen guztiak kenduz. Sei urte geroago, agintaritzak laga eta Frantzia'ra iges egin zuen.

Urte bateko Gobernua Berenger Jeneralaren eskuetan gelditu zan Autezkundeak egiteko aginduz. Egin ziran Botaziño orrek eta Errepublikanoak irabazi Monarkikoen aurka. Udaletxeetako zinegotziak ziran tarteko. Alfonso XIIIk errepublikanoak erabazi zutela ikusi zuenean, Erroma'ra aide egin zuen II Errepublikari bideak erreztuz.

Bigarren Errepublika au Erljioaren aurka ez zan Lenengoa baiño ohea: baiña eskuetan Estatuto bat zekarren euskaldunentzat eta pozik onartu genduen eskaintza ori.

Euskaldun guzietan dei egin zitzaizen Lizarra'ra (Estella'ra) Estatu orren aide danok alkarrekin jokatzeko. Aizken orduan Karlistek, Lizarra'ra jo bearrean, Iruña'n alkartu ziran.

Errepublikak gogor ekin zuen Elizaren aurka eta orretzek eragin zien Naparroa'ko Karlistei, Mola Jeneralarekin batera, gerra berri batean murgiltzea. 20.000 txapelgorri jeiki ziran batera, eurentzako Irugarren Karlistada onetan. Errepublikar gorroto zioten. Gipuzkoa eta Bizkaia'k eskuetan zekarren Estatutoa nai zuten eta areri begira daudela, ustekabean, napparak eta arabarrak zituzten bizkarretik erasoka...

1939'an galdu zuten burruka, eun urtez, 1839, Espartero'tik onuntz. Arrek Fueroen Arbola ebagi, eta gelditutako mokorra, Franco'k desegin.

"Betikoa Jainkoa" eta Franco berbera be il zan.

1975'ean, batetik bestera, Konstituzio berria. Euskaldun geienek ez zuten onartu, Espartero'ren gaitza berbera zekarrelako bere erraietan. Orduko arazoa au zan: "Se confirman los Fueros... sin perjuicio de la unidad política de la Monarquía" eta ondoren azpitik ebagi arbola guztia. Eta Franco ondoren (1978) egiñikoak diona da, gudarosteak gordeko duala Espaiña'ren "unidad política" ori.

Beraz, lengoetan gaude, Espartero'ren denboretan; baña, okerrago. Orain meatxu egiten digute militar gudarostearekin.

Ez genduen onartu eta arrazoi osoz.

Salburuan, Alderdi Egunean, Iraillaren 27'an, esandako itzak Espaiña'ko ollategi osoa kakarakaz bete du. Zertzuk esan ez dituzten!

Felipe Gonzalez'ek, ETA'ren gelditua, Espartero'rekin naasten du. Garaikoetxea'k garbiago diño: "La Constitución tiene la misma trampa que Espartero".

Espartero'ren garaietan baziran euskaldunen artean Espartero'ekin bat zetorzen liberalak... Ori, azken batean, askatasunaren frutua da.

Baña, 1978'garren urteko Konstituzioa euskaldun geienak ez zuten onartu. Eta, ori Demokraziaren frutua da...

Deba'n Urrillak 1. 1998

**ARRINDA'tar Anes**



ulertu legi tZ, ezlu uue ulel

Euskerari buruzko ainbat jokabidetan orixe egiten dogula dirudi.

Batak eta besteak ibilbide eta jardunbide ez-berdinak aukeratzen doguz, alkarren aurkako salakuntzak egiten, guztion aalbideak eta aaleginak bateratu barik edo, gutxienez, orretan saiatu barik.

Jokaera ustel eta zistrin onek zerau darakusku: eus-

neuke Euskalerrri osoan lau euskalki gutxienez –Arturo Campion nafar euskal irakasle jakintsuak dakarrenez-izatearen arrazoia eta zegaitia ulertu aal izateko.

Gogora ekar dagigun, adibidez, karistiar eta barduliar leinuen muga –oraingo bizkaitarren eta gipuzkoarren aurretikoak– gaur bertan bizkaieraren eta gipuzkoararen muga ber-bera dala, au da, Leintz aranean datzan Gatza-

ga erriaren albo-alboan daukagun ARLABAN mendatean jaio eta Gipuzkoako Deba udalerrian itxasoratzen dan DEBA ibaia dala.

Gaur-gaur oraindiño DEBA ibai orren inguruan edo ur-urrean amalau udalerrri dira Gipuzkoa eskualdekoak izan eta funtsean bizkaieraz berba egiten dabenak, gipuzkoeraren zipriztin batzuk agertu arren: Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar, Soralue, Bergara, Antzuola, Elgeta, Oñati, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Gatzaga.

Euskal errialdeen zatiketaz eta bananketaz gaiñera, baita burutan artzekoa da albo errietako jokabidea, zeatzago, Frantziaren eta Espainiaren Euskalerriazko artu-emonak be, zorionez edo zorigaitzez (?) euskaldunok laterri/estatu bitzuan bitartean bizi bearra suertatu dakigu eta (dakigu: adizki zaarra=jaku).

Kondaira/Historiaren aldetik, urrengo zertzelada au be oargarri da: euskal errialdeak ez "erresuma diferent" soillik, Axularrek dakarrenez, gainera, bata-bestearen etsai eta arerio izan dirala ainbat alditan eta jokabidetan. Gertakari latz eta adur txarrako onen argibidetzat, Beotibarko burrukaldia aitatu dagidan, nafarren eta gipuzkoarren artean gauzatua eta gertatua, dinoenez, benetan odoltsua eta mingarria izan zana...

Baita oroitara ekar beite, 1512 garren urtean Gaztelako eta Aragoiko Errege Fernandok, izengoitiz "Katolikua" eritxanak, maltzurkeriz eta zuzengabez egindako erasoaren ondorioz Nafarroa garaitua eta menperatua izan zanekoa eta bidenabar Nafarroagaz batera ERRE-SUMA ZAARRA guztiz suntsitua geratu zanekoa.

Mendeetan zear Euskalerrriak jasan izan dauan erasoaldirik bortitzena, garratzena, galgarriena eta ondagarriena izan zala esango neuke, beraren ondoren negargarriak eta edegi ebazan zauri sakonak eta mingarriak gaur-eguneon be agirian nabari dira eta. Gerrate aretan gipuzkoarrak Gaztelako Erregeari lagundu eutsoen nafar jatorren aurka. Anaiak anaien aurka!

Urte batzuk geroago, 1521 garrenean, erbestean bearez ziran nafar leialak –Frantzizko Santuaren aita, anaiak eta beste– Frantziako erresumaren laguntzaz, Irufla, Nafarroako uriburuaz jabetzeko asmoz etorri ziranean, Loiolako Eneko/Iñigo, urteak joan eta urteak etorri Iñazio Santua izango zan ber-bera, Gipuzkoan bane-na ara eta ona ibilli zan nafar zintzo eta jatorren aurkako burrukara gipuzkoar gazteak eroateko asmoz, Loiolako Eneko bera burrukaldian bertan zauritua izan zalarik. Orain ere euskaldunak euskaldunen arerio. Negargarri-gorik!

Ez dagigun aaztu, bestalde, euskera, zoritxarrez, irakaskuntzatik baztertua izan dala beti, norbere etxekoen eta familikoen artean izan ezik. Erriko erakundeetan,

ostera, bapez, ez leen-aldietan, ez oraingoetan.

Guzti au eragingarri dala eta, errialde baktzeko berbetearen bereizkuntzak eta leizeak txikiagotuz eta medartuagotuz joan bearrean, geroago eta zabalagotuz eta aundiagotuz joan ekiguzala (ekiguzala, adizki zaarra = jakuzala).

Guzti au egia izan arren, euskera izkuntza bat dala gauza nabaria da, ez bi edo iru bateraturik sorturikoa.

### **Euskaldunon izakera edo mendua**

Euskaldunok dogun izakera bereziari begirada bat emotea ondo etor dakiguke, geure berbakuntzari gagozkiola, garai onetan daukagun jarrera argiago ager dakigun.

Norki/gizaki edo giza-talde baten izakera eragille askok baldintzatu dagikee: bizi dan lurraldeak, errialdeak, otz-berbak, bizibideak, erri-jakintzat, eta abar.

Euskaldunon mendua eta jardunkera sorrerazo dauanetariko bat geu euskaldunon kondaira izan da zalantzarik bagea, kondaira onen barruan baserria sartzen dala.

Bizitzearen eremuan Euskalerrrian gora-beera aundi-koa izan da baserria oraintsu arte.

Gizaldietan zear bizitzeko bear izan diran gauzarik geienak baserrian bertan eskuetaratu izan dira: jana, jantzia,ugarria...

Liñoaren langintza, gaur guztiz galdua, garrantzizkoa izan zan Euskalerrrian leen gizaldietan. Eta nok ez ditu ezagutu baserrietako gorulari asper-eziñak, geienetan etxekoandre edo amandre zaartxoak?

Baserri edo etxe-bizitza baktotxa bere eskuko eta bizibideko izan da oso-osorik, beste inoren menpeko izan bagea. Eta au ainbat sail eta maillatan.

Mendez-mende onantxe bizi izan diranak euskaldunon izanbidea murriztu edo medartu egin dabe bizitzeko era aparteko bat markatuz, besteengana edegi barik eta geure baitara bildurik.

Beste berba batez: euskaldunok guztiz "neurekoiak" edo "geurekoiak" garata geure eritxietan, bizitzako jokabideetan, eta abar.

Eta orrexegaitik bateragatxak edo bateratu-eziñak, neure edo geure irizpide/eritxiari eta jokabideari tematsu eustekoak, edozein gauzaren –eta euskeraren berarenkaltetan izan arren.

Ezin dogu amor-emon. Ezin! Ez gara iñoren eritxira eta jokabidera makurbera. Leenago!!!...

Gizaldietako euskaldunon jarduera onek gure izakera eta izanbidea sillutu egin dauz.

Onangoxeak izan gara, onangoxeak gara eta onangoxeak izango gara. Eta KITTO !!

Izakera eta jokera au garbi-garbi agertzen da azken garaiotan euskerari buruz darakusgun portaera zistriñaren alorrean.

Autuan diardugula, mesedegarri eta argigarri izango litzakigu "Gorrotoa lege" izeneko elebarria irakurtea, Yon Etxaidek euskera eder'ean idatzirikoa eta Erdi Arran, amabosgarren mendean, oiñaztarren eta ganboatarren ekiñaldietan girotua.

Leenago. Txomin Agirre, ondarrutar otsaundiko idazle eta elebarrigilleak, Erdi Aroko euskaldunen arteko gora-beerak eta aditu-eziñak gaitzat arturik, laugarren irakurgai osotzeko asmoa izan ei eban, baiña liburu burutu baiña leen, il egin ei zan, eta Agirre ondarrutarrak ezin amaitu izan ebana, Yon Etxaidek egin eban, elebarraren berba-aurrekoan ber-berak dirauskunez. Txomin Agirrek "NI ta NI" izenburua ipinteko asmoa ei eban. eta izenburu ori oso egokia izan zeitekean euskaldunon izakera: "NI ta NI". edo obeto: "NEU ta NEU".

Gure izkuntzaren il-nai-biziko ordu larri onetan alkar artu eziñekoak garala euskaldunok, esan dogu oraintxe, konpongatzak, norberkotiak edo norberkoiak, geureari temati eustekoak, geurea baiña ez egitekoak, errian esaten danez, "buru gogorrak"... Bide orretatik euskararen arloan ez dakit nora eldu gaitkezan euskaldunok. Urrun-urrun ez!

Manuel Lekuona, aaztu eziñeko irakasle bikaiñari. bein baiña geiagotan entzun izan neuntsan: "Oinaztarren eta ganboatarren odola daramagula euskaldunok gure zainetan" Egia, egia!!

Eta gure zanetako odol onek irakin eta irakin egiten dau bizitzako geure agertaldietan, euskera gure berbakuntzari gagokiozala be bai.

Adibidez, euskaltzale batzuk, "h" euskeraz ikusi baiña deabruaren okotza ikusi gurago dabe. Beste batzuek, barriz, "h" bagako euskera irakurri orduko "moro" biur-tuko litzatekez.

Ez bata eta ez bestea. Emen be, beste arazo askotan lez, ertzekeri edo neurriz-gorako jarrera eta jokaeren guztien gaiñetik, erdibidea izango litzateke opagarriena eta jarraigarriena, ene eretxiz.

Euskera bera dogu leentasuna daukana, ez "h"-dun euskera, ez "h"-bakoa.

Euskera gal badadi, zein onelango zein arelango euskera alper-alperrik letorkiguke.

Gogoeta oneek irakurle guztiai eskeintzen dautsedaz, bakoetak bere kolko barruan azter eta ausnar dagizan. ON EGIN DAIZUELA!

Irailak 20, 1998

**AGIRREGABIRIA**

## BAKEA GORA, BAKERA

### BEERA

Bakea dabil agorik ago. Inoizkorik sarrien. Bakea gora, bakea beera.

Alde batekoek zein bestekoek. Bakea eskatu izan jake batzuei bakarrik.

Erri au, baina, bake egarri izan da eundaka urtetan. Erri au beti bakezalea izan dalako, jakina. Askatasun egarri dan Erriak bakezale baino besterik ezin dau izan. Bizirik irauteko bakea bear dualako. Ez edozein bakerik, ez edozelango bake merkerik ez. Zuzentasunean oinarritutako bakea baino.

Arrain andiak txikia irunsi ta jan... Indarrak aginduten dau or. Indarrak pertsonen eta Errien eskubideetan agindu daroa, zuzentasunaren aurka.

Zuzentasunaren eskubideak luzarogian egon dira ostenduta gure Erriarentzako. Berba ederra *zuzentasuna*; arrain andiak aaztua, baztertuta, baina.

Zuzetasun barik ez dogu Erri onetan bakerik jade-tsiko. A barik ez da ezer onik bertan egongo. Bera da bakearen ibilbidea eta ibilgailua, oinarria eta zutabea.

Gure Erriak bakea gura dau, argi ta garbi, baina zuzentasuna bide dala, oinarri dala.

An-or-emenka dabil *bakea* berbea. Inoizkorik sarrien. Bakea aginduten deuskue, mamin bakoa. Bakean buruz dabilz, ez zintzoro esan eta agintzetan. Zuur egon!

**Iniaki MARTIARTU**

1998ko urrian





## BAKION BERTSO AFARIA UDAN

Abuztuaren 13an urteko bigarren Bertso Afaria egin genduan TXOBERNE tabernan. Gure asmoa erritar eta udatiar euskaldunen arteko artuemonak euskeraz sortu edota indartzea izan da. Datozan udetan be asmo orregaz aurrera egitekotan gagoz. Oraingoan. Jon Maia eta Jokin Sorozabal bertsolari gipuzkoarrek lagundu euskuen zeregin orretan. Makina bat adarjote egin eta barre eragin ebezan bertsolariok. Entzule izan gintzazanak pozik be pozik lotu gintzazan eurek egindako bertso saioagaz. Jana eta edana ugari eta ona. Orretan TXOBERNEkoek egindako aalegina eskertutekoa izan da, benetan. Esan bear be, an egon ziran geienak gazteak izan zirala, elduagoren bat geiago etorriko zalakoan egon gintzazan arren. Denbora osoan euskeraz ibili gintzazan danok. Aurkeoetan ez lez. ez genduan Bertso Afarian bape erderarik entzun!

### Afaria dala eta....

Jon Maia

Digestioa izan liteke bertsoei esker arina, zuen errian famatua da ondartza ta txakolina. Baina badago erritar franko elkar biltzeko adina. Udaran ere badaukazue euskeraz non itzegina. (zortziko nagusia)

### Bakio ta euskerea

Jon Maia

Baina bere postuai ezin egin uko. orretarako badu makina bat truko. Erri sarreran jarri bear da lekuko; ta erderaz itz egiten somatu orduko. euskera ez dakitenak ez dira sartuko. (amarreko txikia)

### San Joanen inguruko gorabeerak...

Jon Maia

Pozik ibiltzen dira, tralari tralara, gaba aide orretan mutilen festara. Ligatu ta sasoirik piskat baldin bada, batzuk joaten dira San Joango ermitara. (zortziko nagusia)

Jokin Sorozabal

Artabururik ba ote dagon ikusi bearko genduke, erri onetan kostaldea jendea pilatzen dute. Gaurkoan ere orretan oso seguru egon gintezke. kostan gaudela sines dezagun arrain zopa eman digute. (zortziko nagusia)

Jokin Sorozabal

Ori ez litzateke oso lorpen gutxi, baina ainbeste kemen nola erakutsi. Beste bide batetik liteke obetsi: euskera ez dakiena onuntza iritsi eta ikasi arte irteten ez utzi. (amarreko txikia)

Jokin Sorozabal

San Joango ermita ortan egiten da plana ori da azken aldian nik entzun dudana. Zertara joaten ote dira beregana? Santuari eskatzera lige eder bana (zortziko nagusia)

Afariko adarjoteak...

Jon Maia

Begira. adibidez. neska poxpolina, neska poxpolina, ortxe daukazu Unai ingeniero fina, ingeniero fina. (koplak)

Jokin Sorozabal

Ingenieroa bada askoz obeago. askoz obeago, baina abuztu aldean oporretan dago, oporretan dago. (koplak)

INIAKI MARTIARTU

### IRAILAREN 29an SAN MIGEL ZUMETZAGAN

Urtero-urtero Zumekagako XI. edo XII. gizaldiko baseleiza erromanikoaren inguruan ospatuten da Mikel Deunari egiten jakon jaia. Zumekaga erriz Mungia izan arren. Bakio zein Jata-be. Markaida edo Larrauriko erritarrek arajoateko jokera andi eta sakona izan dabe beti. Sentimenduz edo biotzez jai ori ondoen bizi izan dabenak eurak izan diralako. Aurton. Mungialdeko AEK eta Bakioko Turismo Bulegoak egitarau apaltxua eratu dabe jaiari zeozertxu geitutekotan: sokatirea eguerdiatean eta jota txapelketea arrastian .

Kristautasuna eldu orduko, ziur antzean, euskal jainkoren baten edo batzuen aldeko ospakizunak egingo ziran bertan, Jata mendi bizkarrean. Ostean eta eundaka urteetan. Jaun Done Mike] eguneko euskal erromerieak bizi-bizirik iraun izan dau orain dala urte gitxira arte. Aspaldion baina, bestelango giroa jaubetu da egun orretan. Gero eta inguruetako erritar gitxiago agertuten da an. eta jai orrek izan dauan nortasuna itzelean galduz joan da. Bizi be, txosna zaratatsuen kulturari bizi gara eta.

### ITXAS-ALDEren BARRIAK

Guretzat urteko ekintzarik nagusia Andra Mari eguneko, abuztuaren 15ekoa, izaten da. Betiko lez. goizean eta Meza Nagusia amaitu ostean, taldeko neskautilik gazteenek dantza saio laburtxua eskaini eben eleizaurrean. Aurton, beste batzuen artean, Xiberoko dantzak egin genduzan leenengoz. Eguraldi on-ona izan genduan eta giro alai eta koloretsua lortu genduan Eleizaldeko plazatzuan.

Gauean, "BASERRIAN" deritxon ikuskizuna aurkeztu genduan. dantzari nagusiakaz. Oraingo onetan, txikienetarik batzuk be agertu ziran, mutilak batez be, "Abaltziketako Txantxoak" dantzatzu. Aibat gauza barri izan ziran ekitaldian: irudiak ("Laborantzak") saioari asikerea emoteko, orain arte eskaini bako koreografiak ("Sagar Dantza", "Gaitarako Balsa", "Uztai Aundi"). dantza barriak ("Azeri Dantza", "Abaltziketako Txantxoak"). jantzi barriak eta agertoki bi. baten ordez. Oneekaz gutti oneekaz ermita bizkordun ekitaldi ikusgarria eta polita eskaini genduala uste dogu, eta askok esan euskuenetik, dantza geiagoko ikusteko gogoaz lotu ziran amaitukeran.

Dana dala. emen ez da gure lana amaitu, eta irailako (Larrauriko jaietan) eta urriko (Busturialdeko Dantzari Nagusien Jaian) ekitaldi garrantzitsuak egin ostean, Argentinara eroango dogun ikuskizuna prestatzen asi bearko dogu.

ITXAS-ALDE  
Euskal Kultura Taldea

## MEREZIMENDUA!

"Merezimendu" itz au emoten joko, naiz gizonari naiz emakumeari bat-banazko aipuan, erriari edo gizartean diran elkarrean, euren zereginezko irudiak garbi, dirdaikor eta bear-danez agertzen diranean edestiko unetxo guztietan. Gizakiak daukan arrazoitasunezko adimenaren ordea da au, ez abereen adimengabeko izateagaitik.

Orregaitik, gorengo itz onek, gizadiari emoten jakonean bear-bearrezko on artu-emoneko gauzatan, gizon/emakume, erri edo giza-elkarrean izakeran, ixurtegi bi oso ezberdinak daukaz, izendatu bardin egiten direnak: leenengoa sarigarria dana, eta azurriatu egin bear dana, merezimendu-gabea edo ez-merezi geinetan esaten jakonari bigarrena.

Euskadik, ez dau merezi itz au bigarren esaeran erabiltzea beste enda edo erri, gizon/emakume eta lagun-arteakandik. Ez bakarrik bereiztasunean daukagun ez-berdintasuna baliozko gai arloan: bai alderantsiz gizadiak, gizon/emakume eta erri guztiak daukaguzan esku-bideakaitik. Batzuen ezarpena izaten dalako, Euskadiren esku-bide eta merezimenduak edestian zear askoz aundiagoak diralako, berari espataren indarrez ezetza emoten dautsonak eta bere zapaltzaileak baino. Oneik, txarto ibili bear dira adostasunean gizon eta errien esku-bideakaz, nai lau aizetara aldarrikatu. gure merezimenduaren saria eskintzen ba dabe zigorraz edo ez-merezitasunaz: Euskadiri, berak daukazan indar bereziakaz argi egitea, debekatuaz. ¡EUSKALDUNAREN NORTASUNA DA ZAPALTZEN DABENA!.

Antzinetik daki gizadiak esku-bideen gora-beerako merezimenduan zer dan zuzena eta okerra, begitu bestela zer dinoan Aristotelesek JESUKRISTO baino iru gizaldi aurrerago: "Otseman edo gidatu eta jaurritu erri bat beren gizon/emakumeak askatasunezkoak izanda, edozein jauntxo-arauzko bide edo mota aldetik, ez bakarrik izango zala kaltegarria, bai benetako bide okerra, eta orregaitik JASAN-EZINEZKOA".

Zer esan gura dau merezimenduaren itzak? Nor-bera gai. duin, saridun edo zigortua izatea gure zereginetan!.

Argi ikusi bear dogu gaur gure EUSKALERRIAN, itz

onen esaera aldetik nai ta sarituak izan, zeozer geiago egin bear dogula, ainbeste arazo eta ostopo bastarrea alboratzeko, gure NORTASUNA "argi eta dirditsu" agertu daiten; orrela bakarrik ikusi gaitualako gure inguruko erriak, eta konturatu-ko dira: "Eguzkiaren azpian, beste Norbaiten erriñu edo gerizpea dagoela, uts edo uko ezin-jakona egin".

Gure Gurasoak, arimaren itza artesa, leiala eta benetako itzi euskuen eredu lez, guk milla zatitan apurtu doguna, gure erriaren bizitza ezinduan ikusien laguntzaz. Konturatu bear gara, itza ARIMA biurtzen danean, dana egiten dala "Argia, Eguzkitsu, Izartsu, Atorraldia". Bere doñua, beste berezitasun batz agertuko zan gure belarrira, gure Arimaren barrurano joango zalako. Ori izango leiteke eguneroko ogi sariduna Euskalerrian bizi-garanentzat, eta ez JAINKOA gandik urbil, eskuaren luzetara egotea bakarrik".

Gure Gurasoak "JAINKOA eta LEGE ZARRA" ibilli eben gizaldi eta gizaldi askotan EREDU eta ELBURU lez, guri oso osorik itziaz. Zergaitik? Gure erria oso zaarra da eta baleiteke irakas-aldi oso onak eukitea. Bestela, erri txikerra gara, eta gaurko ganorabako xautzaileen (consumidor) bidetik, gu bakarrik desagertuko ginen: gainera, erri asko inguru guztietatik guri begira, eta guzur, amarrukeri edo zakarkeriarekin ezin joan urrin, baita lenengo ostikadarekin ludiko-mapatik kanpo. Begitu zergaitik jokatu bear dogun ARGI eta GARBI.

Orregaitik EUROK (gure gurasoak) ZIREN, eta guk IZAN-BEARRA daukagu ERRIA izateko; bai seme/alabei, ERRIA eta JAINKOAREN bidea argi itziteko.

Gure ASKATASUNEZKO BIDEAN. Gure ERRIAREN NORTASUNEZKO BIDEAN: "BERBEA" "ITZA" ez da edozein gauza ez, BAKOTXAREN ARIMA, ERRIAREN ARIMA BIURTZEN DALAKO!!!

OR BAI ERRIA!!!

OR BAI MEREZIMENDUA!!!

ATUTXA'tar PAUL  
ZORNOTZAN 1998'ko URRILLAN 10'ean

**EUSKERAZALEAK** ALKARTEAREN  
EUSKAL-ASTEA 1998  
(Bilbao'ko Udalaren babespean eta laguntzaz)

Urte guztietan lez aurte be EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k Euskal-Astea ospatuko dau.

Zemendiaren 30'etik abenduaren 4'ra izango da, Eskolapiotarren Ikastetxean Aida. de Rekalde kalean, 19. atean, arratsaldeko 8'retan.

Oneik izango dira izlariak eta gaiak:

30.- Astelena: Zubiri'tar Iñaki: Arrese Beitia'ren olerkaritza.

1.- Martitzena: Zubikarai'tar Augustin: Euskerearen bitxikeriak.

2.- Eguastena: Latxaga (J.M. San Sebastián): Dabbadie euskalzale ta idazlea.

3.- Eguena: Murua'tar Jose María: Euskerea ta Euskerazaintza.

4.- Barikua: Olazar'tar Martin: Euskerea len, orain eta gero.

Itzaldi guztiak izango dabe aurkezpena, alkar-izketa ta bertsoak. Oneik Paulin Solozabal bertso gille dala.

Beioake euskalzale guztiak gure deia.

## ATZERA BEGIRA

Bai! Argazkiko orreek bakiotarrak douez. Guda aurreko ezpatadan tzariak dira eta ez edozelangoak, gero! Batzokiko ezpatadantzariak ziran. Erriaren aurrean, leenengoz, 1934. urteko Pazko Egunean, Aberri Egun ez, egin eben dantzan, Tabernaldeko pelotalekuan egin be. Entsaioak orduko batzokia zan Longarai etxean egiten ebezan, eskolatik urten ta gero, jakina. Ez ziran emtik kanpo inora dantzan egiten joaten, Bakion bertan bakarrik egiten eben dantzan. Beinola baten, baina, Bizkaiko beste dantzari batzuekaz San Mames Athletic-en football zelaian egin eben dan tzan. Zoritarrez, urte biko bizitza laburra baino ez eban eukiko ezpatadantzari talde arek, 1936. urtean asiko zan gudeak asmo eta ames guztiak betiko moztu eta laskituko ebazaneta. Urteak joan urteak etorri, eurentarikoren batzuk Gaztelugatxe eta ItxasAlde Bakioko dantza taldeetako dantzari batzuen aita-aititak izan dira.

Argazkia 1934. urtean goiko eleizako eleizpearen aurrean egin zan. Argazkian agertuten diranak urrengo oneexek douez:

(1) Jose Mari Zabala (ARTETXE) - (2) Rafael Garai (ARDANTZA) (3) Jose Luis Uriarte (URKITZAURRE) - (4) Pedro Uriagereka (UGALDE) - (5) Iñaki Abio (AZERETXOKO ERROTEA) - (6) Jose Mintegi (ERRENTERIA) - (7) Sabino Jauregizar (JAUREGIZARRA) (8) Felizian o Larrauri (19IUXIKENE) - (9) Felipe Markaida (AZERETXO) - (10) Mateo Uriarte (URKITZAURRE) - (11) Felix Erkoreka (AZERETXO GOITI) - (12) Bitor Santana (SUMUSU) - (13) Eustakio Uriarte (URKITZAU-RRE) - (14) Leonardo Barturen (AGARRETXU) (15) Raimundo Barturen (ZAITUA BEAZKOA) - (16) Juan Garai (BENGOL EA) - (17) Manuel Larrazabal (GOIKOLEA).

### BASERRIA

Euzko baserri aintzagarriak arizti ta intxaur artean zuri ta zabal agertzen dira gure lurraren gainean; etxe jagola txakur zuria beti, azkar gaelean; iturritxo ura opaka egarri atsedenean.


Gure arbaso goragarriak sortu zituen kabiak mendi ta soko ta zelaietan zeru izar irudiak; lurralde oro ederrez dauka basetxe apainduriak maite-miñetan ikusten ditut baserri zoragarriak.

Bakar bakarrik zagoz zelaian orlegiz eder jantzirik zure leioan dago amama eguzkiz inguratirik; illobatxoak daukaz alboan alaitasunez beterik zuek maiteok daroazue nire odola bizirik.

Giza biziak ez dau nai berez gorrotorik biotzean senar barria alai bizi da emazteagaz batean; etxeke andre zoragarria pozez laguntzen lanean maitasunezko bizitza onak bakea sortzen etxean.

Euskal basetxe kristau sendian Kurutzea da gidari Jesus maiteak Golgota mendin emon euskun ezaugarri; lan ta otoia lurra landuaz batera doaz bidari baserri muga sinimentsuak ikutuz zerukoari.

PAULIN



(Argazkia: Eli Zubizarretak itzita)

**Iniaki MARTIARTU**



---

# "AMERIKETATIK" EUSKAL TRAINERUA

---

XVIII. gizaldian bokartak arrantzan egiteko Ondarribia aldean erabiltzen ziran 10 arraunlaridun traineruen lakoa da New Yorketik etorritako traineru au. Esan bear da orduko ar'antzaleak itsas-aldetik asagoen 4 edo 5 miliatara egiten ebela arrantzan olango traineruetan. itsaso zabalean inoiz ibili barik.

Garagarrilaren 30ean etorri zan Bakiora AMERIKETATIK izeneko traineru ori eta urrengo egunera arte aretzan egon zan ikusgai. Muskiz eta Baionaren arteko euskal itsas-bidea 28 egunetan eta 300 arraunlarien eskuartzeaz egin zan.

Asmoa izan da, euskaldunen itsas-istoria euskaldunen artean eta munduan zear ezagutu eragitea.

Izan be, leba aundikoa izan da euskaldunen itsas-istoria, gure artean sano ezezaguna dan arren. AMERIKETATIK trainerua Xabier Agotek egin eban Estatu Batuetako Maine urian. Traineru ori egiteko dirua, ostera. Ameriketari 14 errialdetako euskaldunek emon dabe.

Guztiaren ardurea Society of Basque Studies dalako erakundearen leendakaria dan Jose Ramon Zengotitabengoak izan dau. Datozan 10 urteotan Europan zear ibiliko da eta gero itsas-museoren batera eroango dabe, an betiko lotu daiten.

INIAKI MARTIARTU  
1998ko irailean

### BAKIOKO X. IDAZ LEIAKETA

- 1.- Gaia edozein izan leiteke; ipuin, elebarri labur, kontakizun...erara aurkeztuta.
- 2.- Edozeinek artu leike esku; bertoko zein erbestekoa izan.
- 3.- 15 urtetik aurrera lanak idazkinaz idatzita aurkeztu bearko dira.
- 4.- Euskeraz aurkeztuko dira idazlanak, batuaz zein bizkaieraz.
- 5.- Idazlanaren luzerea geien sei orrialdekkoa eta gitxien orri bikoa izango da.
- 6.- Idazlanak aurkeztuteko epea abenduaren 11 an amaituko da. Idazlana gutun-azal andi baten barruan sartuta, berorren kanpo aldean "Bakioko X. Idazlan Leiaketa" eta adin taldea adierazo bear dira.
- Beste gutun-azal txikiago baten idazlearen zeztasanak agertu bear dira: izen-abizenak, jaiotza-eguna, zuzenbidea eta telefono zenbakia. Gutun-azal andia, txikia barruan sartuta dauala, aurkeztu bear da.
- 7.- Euskera Batzorde onen eskuetan lotuten dira zuzenkearen ardurea. azken erabagia eta sarien banaketea. Baita idazlanak argitaratutea be.

### ADIN TALDEAK

- 1.- 7 urterik 10 urtera
- 2.- 11 urterik 14 urtera
- 3.- 15 urterik 18 urtera
- 4.- 19 urterik aurrera

### OARRA

Lanak Kultur Etxean itzi bear dira, aben duaren I 1 an beluen. Sariak abenduaren 24an, Gabon gauan, pelotalekuan emongo dira.

Bakioko Euskera Batzordea

### BAKIOKO EUSKERA- 3

Sarritan, galdu artean ez gara konturatuten etxean zer daukagun. Aor, bada, bertoko euskerea. Askok uste leiken baino ederragoa eta aberatsagoa da. Jagon daigun

Oarra: Era bitara dakarguz, esaterako,

- zelan idatzi bear dan: «auntz-aizea»
- Bakion zelan esaten dan: «(euntzáixie)»

Aizeetan ainbat izen agertu dira Bakion. Bakion non bizi, alango edo bestelango aizeak eta euron izenak agertuten jakuz. Amen, bada, sarrien eta geien erabiltzen diran aize-ize-nok:

KANPO-AIZEA (kanpoáixie): Edo ITSASOKO AIZEA (itxósoko aixié), edo BEEKO AIZEA (bekoáixie). Iparretik jotzen dau. Otza, gogorra eta euritsua izaten da.

IPARRA (ipérra): Edo SAN JOAN AIZEA (San Dxoán aixié), edo JITANO-AIZEA (Jítano-aixié) edo SANJOAL DEKO AIZEA (Sandxoáldeko aixié), edo GOIKO AIZEA (goikoáixie), edo AUNTZERRIKO AIZEA (Auntzérriko aixié). Ipar-sortaldetik jotzen dau. Ez da gogorra ta euritsua izaten, baina, bai, otza ta legorra. Dagoanik eta aizerik otzena da, edurra ekarten dau, neguan batez be. Aize oneri, otz-otza danean, AUNTZAK ILIKO AIZEA (éuntzek ílliko aixié) edo AUNTZ-AIZEA (euntzáixie) esaten jako.

MAÑU-AIZEA (Mañú-aixié): Edo MAÑUKO AIZEA (Mañúko aixié) Sortaldetik jotzen dau eta ez da epela izaten.

TRIBIZ-AIZEA (Tribís-aixié): Edo TRIBIZKO AIZEA (Tribísko aixié). Ego-sortaldetik jotzen dau. Epela izaten da eta euri gitxi ekarten dau.

ERRIKO AIZEA (erriko aixié): Edo ANDRA-AIZEA (andráixie), edo EMBRA-AIZEA (embráixie). Egotik jotzen dau. Sargoritsu eta legorra izaten da udan. Neguan edurra urtuten dau.

JATA-AIZEA (Dxatá-aixié): Edo JATAKO AIZEA (Dxatáko aixié), edo ITURRIAGA ALDEKO AIZEA (Itxúrriaga aldeko aixié). Ego-sartaldetik jotzen dau. Ez da euri-euritsua izaten, baina bai gogorra ta epela.

MENDEBALA (mendabála, mendebála): Sartaldetik jotzen dau. Sano gogor jotzen dau. Epeltxua eta euritsua izaten da, zaldiganeakoak ekarten dauz.

GAILEGO-AIZEA (gallégu-aixié): Edo USATEGIKO AIZEA (Usateiko aixié). Ipar-sartaldetik jotzen dau. Gogorgogorra eta euri-euritsua izaten da. Ez da epela izaten. Itsaso andia eta afrontua ekarten dauz.

## ETXEAN ARROTZ

Bernard Arripe Les Eaux Bonnes erriko haserritar bakanetarikoa bat da. Izan be, oso nekazari gitxi lotuten da Ossau araneke (Biarno) mendialde aretan, ardi eta bei saldoen orde, turista multzoak aspalditik jaubetu dira-eta zelai eta larrez. Alan ta guzti be, Bernard Arripe etxaldean lotu da eta nekazaritzaz bizitea aukeratu dau. Beiak badaukaz Bernard Arripek eta bere baserritik larrara areek eroateko Gourette izena dauan oporlekutik igaro bear dau.

Bai, baina Gouretteko kaletatik igarokeran, Bernard Arriperen beiek zarata egiten dabe, turistaren batzuei bildur eragiten deutsee eta, ara geiago, bekorotzak izten dabez bearen ganean. Ori dala eta, Gouretten jaun ta jaube diran merkatari eta dendariak salaketa egin deutsoe Les Eaux Bonnesko alkateari. Eta arek -Pierre Hervek- arrazoi emon deutse, au da. Bernard Arripe baserritarrak hazterrak naastuten eta loituten dauazala esan dau alkateak, eta eskatu deutso, oporretan dagozanei beraren bei saskel eta zatatsuez alamenik ez emoteko.

Orrek sinistezina dirudi: erriko semeak burua makurtu bear dau kanpotarren atseginerako, etxeok arrotzari eskubidea emon bearra! Ori da, bada, turismoak dakarran errealitate gordina, nagusitasuna artuten dauan lurraldeetan, beintzat. Adibide guztiak erakusten dabenez, turismoa baserrialde gune baten garatu bada, beti izan da baserritar koitaduen kalterako. Ez dago inon be bestelango adibiderik. Beraz. Euskalerriko erritarrek -asko abertzale izanda be- Euskalerrian zabalduz doan turismo kontrolbakoa begi onez ikusteaz ausnarketa egin bearko leukee.

Eta ulertu daiela beingoz, abertzale geienek zergaitik ez dogun bape gogoko turismo menperatzaile edo kontrolbako dalako ori. Cure aukerak egiteko eta gure leentasunak ezarteko eskumenik eta aalmenik ez dogun artean, menperatzerik ez daitekelako izan. Ulertuten ez badeuskue, joan daitezela Bernard Arriperengana.

**Allande SOKARROS (Xiberoa)**

### Berbalapikoa

bakan= urri, gitxi.  
 nekazari= baserritar, lugin.  
 Biarno= Bearn. (Euskalerrria izandako lurraldea).  
 saldo= talde, mordo, aldra.  
 zelai= pentze, bedartza. landa.  
 bazterrak naastu= naaste-borrasteak sortu, inguruak naastatu.  
 alamera emon= gogait eragin, enbarazu egin, gogaitu.  
 garatu= azi, zabaldu, edatu.  
 ausnarketa- gogoeta, gogotan erabiltea, erreflexino.  
 beingoz= bein eta betiko.  
 menperatzaile= zapaltzaile, oinperatzaile, azpiratzaile.  
 eskumen= eskubide, konpetentzia.

### BEARREKO URA EDATEN DOZU...?

Aizearen ostean, ura bearreneko gaia da. Ia illabete bi jan barik iraun dagikegu, baiña ur edan barik egun gitxi batzuk. Edozelan be, jenderik geienak ez daki zenbat ur edan bearko leuken.

Ur barik, gure gorputzaren ondakiñak edenduta ilgo gintzakez. Gultzurrunek uriko garratza (ac. urico) ta urea kanporatzen dabezenean, ondakiñok uretan urtu bear dira, baiña naikoa ur ezean, ondakiñok ez dira osoan ostentzen, eta arriak sortu daitezke gultzurrunetan.

Ura bearrekoa da baita be, janari-egosketea ta onen ustiatzea egiteko, odolaren bidez bearreko azkurri ta oxijenoa eroateko. Lagungarria da soiña otzituteko izerdiaren bidez. Lagungarria da baita be, azur giltzak koipetzeko.

Arnas egiteko be ura bearrekoa da. Biriak ezo iraun bear dabe oxijenoa artzeko ta CO2 kanporatzeko. Olan ba, naikoa ur edaten ez ba'dogu, gure kalterako izan daiteke.

\*\*\*

Ezer irrikatzen ez dauanak, ez dau ezer lortuko.

### ETORKI GIÑANEAN!

Zenbat euskaldun joan ziran Ameriketara, errazoi ezbaridiñakaitik: batzuk lan egiteko, beste batzuk politika arazoakaitik. Eta ara joan eta andik etorri diranak iñoz ez dabe esaten txarto artuak izan ziranik.

Orain andik eta beste leku batzutatik datoz gugana, geienetan lanaren billa. Ez ete doguz onartuko, naizta geuk apur bat estuago bizi-bearra izan?

Ameriketako lurralde guztiak dagoz euskal-abizenez beterik, ez ete dogu guk onartuko andik datozenen abizenak emen zabaltzea?

Zer pentsau dago or. Egia esan. egoerak ez dira bardiñak, kultura-mailla be ez, baiña anaitasuna zabala da berez.

---

# EZKERRA ETA ESKOIA

---

## ZER DIRAN

Sarritan neure buruari itaun au egiten dausat: "Zu ezkertiarra ala eskoitarra zara", eta ez dot jakiten zer erantzun. Eskertiarrek demokrazi-zaleak ba'dira, ni ezkertiarra naz, eskoitarrek giro egokia ta erlejiñoa ta berbea betetea nai dabenak ba dira, ni eskoitarra naz. Berba oneik Jose Antonio Agirre'ren itzaldi bat dakarste burura.

Ezkertiarrek gizartea aldatzea nai ei dabe, eskoitarrek ostera gauzak dagozen lez jarraitzea nai dabenak ei dira, ezkertiarrek gizarte-zaleak edo sozilizistak ei dira, eskoitarrek ostera, domu-zaleak edo kapitalistak eta gaur domu-zalekeri barrira edo neokapitalismora sartuak...baiña egin daigun azterketa sakonago bat.

## ELEIZEA TA EZKERRA

Gure inguruetan fededunak eta gizarte-zaleak al karren aurka ekin dabe aspaldion. Oraintsu entzun dogu gizarte-zaleak kristiñauakaz alkartzeko bideak artzea nai dabela, eta gizarte-zale bat baiño geiago dagoz oso fededunak diranak. Geiago esango neuke, Jesus'en Barri Onagaz obeto alkartzan ei da gizartezaletasun edo sozialismoa, domu-zaletasuna edo kapitalismoa baiño. Ezin ukatu, orregaitiño, ezkertiarrek jokabidea oituren edo etikaren arlon obetu egin bear dabela.

Gure eleizetan diran sendotza-taldeak gizarte-zaleak sortzeko mintegiak dirala diño. Eta orrek ez nau arritzen, argi ikusten dalako domu-zaleak edo kapitalistak zelako mundua sortu daben, baiña ez leukie aitzu bear gizarte-zaletasuna bizi-bizi ezarri dan lekuan, esaterako Errusia'n, zelako ondorenak ekarri dauzan.

Mundua eta bizierea begiratzeko erak,ideolojiak, euren aldi beroa izan dabe, baiña gure aldi onetan ez dauke lengoa lako bizitzaunik, galtzen doaz. Gure XX gizaldi au ondo astindu dabe ideoloji orreik, baiña gaur mundu barri bat erne jaku eta geuk ikusiko dogu mundu barri ori azi egiten dala. Ba-dauko arlo onetan bere zeregiña erlejiñoak,batez be kristiñauenak.

## LARRI-UNEA NON?

Beste itaun bat be egin bear dogu: Non dago larri-une aundiagoa, eskoitarren ala ezkertarren artean?

Ezkertiarrek dagozela larriago esan lei, gizartea aldatu-gureak berez larritasun geiago dakarrelako, lengoan jarraitzeak baiño. Eskoitarrek aldakuntza gitxi egin eta jarraitzea nai dabe eta orrek ez dau sortzen urduritasun aundiegirik.Ba-dago, orregaitiño, larrialdia eskoitarren artean be.

Ezker-bideak aldakuntza aundi bat bear ete dau ba? Baietz dirudi. XIX gizaldian ezkertarren jokia sortzeko izan ziran zioak, gaur asko aldatu dira eta gaurko esker-jokabideak burubide orretan jarraitzea baiño beñago dau bere ekandu-jokoa zuzentzea. Lengo pentsabidean jarraitzen ba'dau, ezker-jokoak ez dauka gaur urtenbiderik. Burubide utsez indarra artu dauan ezker-joko orrek, gaurko gizakien jokabideetara sartu bear dau, burubideak aide batera itzita.

Zer zaindu bear leukie ezkertiarrek jokabide barri onetan? Zer aldatu? Lenengo ta bein, gaurko munduari, aldien ezaugarriak gaur agertzen daben munduari begiratu. Eta or arazo bi dagoz ezelan aitzu bearko ez diranak: Lanik-ezaren arazoa eta ondasunen banaketarena edo erri atzeratuen eta aurreratuen arteko ezbardintasun mingarria. Biak dira gizarte-zaletasunaren gogo biziari oso lotuak. Ezin izango dau gizarte-zaletasun edo sozialismoak alboratu, ez bata eta ez bestea. Zelan alboratu munduan dirak %80'k ondasunetan %20'ren eskubidea baiño ez izatea? Demokrazi-zale lez agertzea naikoa izango ete da banaketa oker eta lotsagarri ori onartzeko eta orrelan gizarte jokabide zuzen bateri emoten jakon erantzun oker nabaria zuritzeko?.Ola-ko jokabide oker orren ordezkristiñau-bidetik aldarrikatzen dira senidetasuna ta solidaritza artu eta aurrera atera bearko dauz.

## LANGILLEDIA

Gizarte-zaleak, sozialistak, langillediaren aide jokatzea izan dabe euren ekintzarik bizierna, eta ezin ukatu orretan lan aundia egin dabena, baiña gaur zertan dago langilleen aldeko ekintza bizi ori?

Egia esan, ekintza orrek jarraitzen dau eta jarraitu bear dau. Or dago sindikatoen Ian txalogarria, euren zeregiña akats barik betetua izan ez arren. Eurai zor jake gure artean ondasunen banaketa zuzenagoa izatea eta Irugarren Munduko jokabide diru-eskuratzaileak gure munduan ain nabarmen ez agertzea.

Baiña langilleen aldeko burruka bera gaur larri-une baten dago, esaterako lanbakoak ezin dira izan sindikatoetan ordeztuak. Gaiñera lanbakoaren arazoa mundu guztiko

arazoa da eta sindikatoak mundu-maillan erakunde makalak daukez. Domu-zalekeriak edo kapitalismoak bai badauko mundu-maillan indarra, onein aberria mundua da eta politikako erakundeak eurak baiño be alkartasun aundiagoa dauko munduan, baiña ori, gaur arte eta mailla egoki baten ez dabe lortu sindikatoak eta sozialistak, ezin izan dabez aurrera atera mundu guztiari eragiteko ekintzak. Mundu guztiko laterrien alkarteak indar geiago artu bear-ko dau eta or barruan benetako gizarte-zaletasunak egin-bear bereizi bereizia dauko, ondasunak zuzentasunez banatzea nai ba'dogu. Ori iñoz ez dau lortuko kapitalismoak.

## EKONOMI UTSA?

Gizarte-zale edo ezkertarrak kontuan artu daben arazoa bakarria ekonomi-girokoa izan da, baiña ezkertarrak gaur sakonago sartu-bearrean aurkitzen dira, etorkizunari begira. Irakaskintzara eta albiste-bideetara sartu bear-ko dabe euren elburua lortzeko. Ori izango da alkar-ekintza edo solidaritza eta bardintasuna, senidetasuna aurrera aterateko bidea. Irakaskintzan, esaterako, ez da naikoa lana ondo egiten ikastea, gizarteko alkar-bizitza eta alkar-banatzearen jokabidea sartu bear-ko dau gazteen burubideetara. Gazte oneik gizartea aztertzen eta bideratzen ikasi bear-ko dabe eta orretarako liburu-eta albiste-bidetara lotuagoak izan bear-ko dabe.

Gaurko eziketaren gaiso bat, gizaki barriak buru-laburren moltso biurtzea da. Oneik gizakiaren barru-bizitza oso eskasa dauke, onein ardurak ez dira geiago zabaltzen lanaren mundura eta jolasketaren mundura, eta gorputza gurtzera baiño eta euren alkar-izketak oso azalekoak dira. Ori ez da gizarte-zaletasunaren ondorena, domuzaletasunarena baiño. Dana dala, or dago gizartean jokabide ori eta gizarte-zaleak ori bideratzeko lana egin bear-ko dabe. Giro orretan ondasunak ugariago dagoz, bizitza nasaiagoa dago baiña gogo-bizitza oso laburra da.

\* \* \*

## LAGUNTZA

Arlo orretan laguntza aundia izango leuke Eleizearen gizarte-irakaskintza, asieran esan dogun lez. Gizarte arloan irakaskintza ori ona da, domu-zalekeriaren aurka kritikazaillea da, baiña ori egiteetara eroateko orduan, ez da gauza aundirik lortzen. Gaurko biziera egokia lortzeko asko lagundu dau, baiña bigarren mille-urte au amaitzerakoan, zeregin aundi bateri lotuta dago: Irugarren munduan dan laterri-zorraz kentzeko ekintzak burutzea. Kristiñauak dira Blair, Kolb, Prodi ta Clinton, baiña egiten dabe ezer G-7

edo zazpi laterri aberatzenen artean olako ardurea sartzeko? Eleizea bera be iñoz ez da ausartu zazpi aberatsen orrei arazoa argi ta garbi agertzera. 2000n. urteko ospakizun onetan, beste ekintza batzuk aide batera itzi barik, esaterako otoitza, barauak, santutegietara erromes-aldiak eta olakoak, ozenki dei egin bear jake kristiñauak izanik arazoa bideratzeko indarrak geien dauken kristiñauai.

## BATERA JOKATZEN

Non alkartzen dira ba ezkertarrak, sozialistak, eta kristiñauak? Iru jokabide orrean iturrira begiratu ezkerko, argi ikusten da ori: Kristiñau izateak Jainko bakarria gurtzea eta eta gizaki guztien bardintasuna ta anaitasuna dira edo beste era batera esateko, azkenengo diranak lenengo lez artzea. Ori argi dago ebanjelioan eta ez ain beste beste erlejiño batzutan. Gizarte-zaletasuna be orretarako sortu zan, gizartean diran azkenengoen aide jokatzeko. Or errez-errez ikusten da elburu biak alkarrengandik urrean dagozala.

Ba-dakigu gizarte-zaleak beti ezkertiar agertu gurarik ez dabela izaten, naiago izaten dabe aurrelari lez agertzea. Ori da euren makaltasuna. Orregaitik asko eta asko gizarte-zaleen bidera sartzen dira onein elburuak zeintzuk diran jakin barik, norberekeri aundi batek bultzatuta, eta gero gizarte-zaleak ezin dabez lortu euren elburuak olako bazkideakaz. Zelan ulertuko dabe olakoak zerga geiago ordaindu bear dala alkar-laguntza indartzeko? Gaurko munduan politikako joko batek aurrera egin nai ba'dau, ondo bizi izatea eta ondasunak batzea aldarrikatu bear-ko dauz eta onelan ez dago gizarte-zaleen elburua aurrera ateraterik. Orregegitik gaurko gazteak, aurrerezaleak izan arren, ez dabe nai politikara sartzerik, bizikera gozo ori ez dabe galdu nai.

\* \* \*

## ONDORENAK

Ezkertiar izatea ta gizarte-zaletasuna zer dan azaldu nai ba dogu, ezaugarri bi agertu geinkez: lantokiak gizarteratzea eta ondasunak zuzenkiro banatzea. Lantokiak gizarteratzea gaur ez da ain argi ikusten, alkargoak edo kooperatubak izan dira orretan obeak, baiña lantegiak laterriratzeak ondamentira eroan dau munduko lurralde asko. Ondasunak egokiro banatzean, osteraz ez da aurrerapen aundirik egin. Zoritzarrez olako jokabideak ez dira onartzekoak agintaritzaren erritarren esku ez dagoanean, demokrazia gizarteratua litzake jokabiderik egokiena, baiña, erritarren norberekerian sartuta dagozen artean, eziña. Orregaitik da ain bearezkoa eta ain gatxa erritarren eziketa, gizarterako eziketa. Ba-dago or non lan egin.

**OLAZAR'tar Martin'ek**

# AITA PIO ITALIA'N

## MONASTEGIAN

Aita Pio ospetsua Italia'n il zan 1968'ko iraillaren 23'an, santuantza eukala. Eriotza ori, bere esku, oin eta saietzean Jesus'en zauriak, 1918'ko iraillaren 20'an agertu ondoren jazo zan. Lekaide kaputxiñoa zan bera.

Italia'tik kanpora ulertu be ezin dogun gauzea da gizarte ta erlejiño-maillan santu-antzeko onek an izan dauan ikutua.

Bere monastegi apaletik iñoz ez eban urten Aita Pio deritxon lekaidetxu onek. Antxe bizi izan zan 1916n, urtea ezker, baiña berak egindako alatz edo mirariak zarata aundikoak izan ziran, eta il ondoren bere ospea aundiagoa ta zabalagoa biurtu da.

Eleizearen aldetik santu lez agertzeko bidea 1997'ko abenduaren 18'an zabaldu zan eta orain guztiak dagoz Jon Paul Aita Santuak 1999n. urteko udabarrian zori ondunen artera sartzeko egunari itxaroten.

Erritar zintzoentzat gaur be santutzat artua da eta geroago ta geiago dira bere bitartez lortuak dirala-ta agertzen diran alatzak.

\*\*\*

## LUR-IKARAK

Erlejiño-giroko berotasun aundi bat sortu zan San Giovanni Rotondo erritxuan iraillaren 22'tik 23'ra bitartean: 70.000 lagun inguru batu ziran Andra Mari Eskertsuaren Santutegian, bere eriotza izan zanetik 30n. urtea ospatzeko. Otz egiten eban baiña eguneko nekeak eta laztasunak igaro ondoren, goiz-aldera-arte otoitzean irauan eben bere maitaleak. Illearen 23n'eko ordu bat eta erdiak inguruan lur-ikara naikoa aundi bat izan zan. Guztiak zomau eben lur-ikara ori argi-argi eta an egozanak ikareak artu ebazan, baiña kaputxiñoen nagusiak, Eleizan dagoan Espiritu Santuari buruz berbaldia egiten egoala, baretu al izan eban bildur-ikara ori eta eleizkizuna amaitu zanean guztiai eskatu eutsen bakez eleizatik urteteko.

Lurrak beste astiñaldi bat izan eban goizeko seiretan, baiña ez ziran joan Aita Pio'ren illobi-ondoan geratu eta barruko berotasun aundiagaz otoitz egiten eben, askok dirua botaten eben eta beste askok mesedeak eskatzeko ingi idatziak jaurtiten ebezan.



## Eusko Jaurlaritzaren Laguntzaz.

Kultur Saila'k diruz lagundutako aldizkaria.

Goizean kurutze-bidea egin zan eta an izan ziran italiar asko eta urriñetik, Ausatralia'tik be bai, etorritako kristiñauak. Gero Santutegian mezea esan eban bertako kardinalak. Santutegia gainezka egoan

\*\*\*

## ELEIZA BARRIA

Eleiza barri bat egiten diardue orain: Renzo Piano da etxegiña eta 2000n urterako amaituta egongo dala diño. San Pedro Basilikearen urrengo, munduko eleizarik aundiena izango da. Eleiza oso idegia ta zabala da eta auxe diño Etxegilleak: "Nitzat eleizea idegita dagoan etxea, guztientzat idegita dagoan etxea da".

Gaur San Giovanni Rotondo munduan ikuslerik geien artzen dauan eleizea da: 1997n. urtean zazpi milloiti ta erdi izan ziran ara urreratuak. Orrenbeste ez dira urreratzen ez Lourdes'era, ez Fatima'ra eta ez Padua edo Asis'era.

## SANTU-BIDEAN

Alta Pio zori onduna dala agertzeko eguna zein izango dan ez daki iñok oraindiño.

Aurtengo abenduan alkatuko dira bearrezkoa dan alatz aintzat artu bear daben jakitunak.

Alatz orretan Aita Pio'ren bidez osatu zana Consiglia de Martino da.

Jakitunen erabagiari itxaron bear jako orain: Alatz dala esaten ba'dabe, eta ori uste dabe guztiak, urrengo urratsa, erabagi ori erri-aurrean agertzea izango da eta gero zori ondun lez agertzeko eguna izendatuko da.

Orrillaren 25n. eguna izan daiteke, 1887n. urtean, egun orretan santugai onen jaiotzaren urte-urrena dalako. Ori bai izango litzakela erantzun egokia Aita Pio'k izan dauan ainbeste jazarpenen aurka: Erroma'ko eleiz-agintariak eta, batez be, Fede-Egien zaintzaille dan Eleiz Bazkun Nagusia izan dira aurkalaririk sendoenak santugai onen aurka eta iñoz beartu be egin eben erri-aurrean mezarik ez esatera.

Itxaron geinke ba, urte asko barik, Aita Pio santua izango dogula.

**OLAZAR'tar MARTIN'ek**



## ERAGIÑA BIZITZAN ETA MUNDUAN

Txeroki Jimalee Burton inditarrak diñoskuzan berba oneik aztertu daiguzan. Bizi-biziak dira, gure barruan eragin handia eragin leikee. Bizitzarako jokatubidea, izadiaren ikutua eta barruko zomapienaren biguntasuna izan leitekez.

Auxe diño: "Olatu dunduritsua ondartzan, urtearen lau aroak urrengorik urrengora, egaztien etorrerea ta joakerea, neguko lotaldi luzea igaro ondoren artzaren itxarkundea... iñok ez daki zelan jazoten diran baiña bakoitza bere sasoiaren orrelan agertzen dira doi-doi eta zeatz.

Entzun egizu eskutorrean zure biotzaren taupadea, biziaren tanboril-ots ziurra. Eragin zeatz ori galtzen ba'da, gaisotu egiten zara; zarata orrek sendo jarraitzen ba'dau, pozik zoaz aurrera betikotasunaren landetara".

Biziaren eragiñak, illargia eta beronek dakazen itxasgoraberak, gaba, udabarria ta negua, lorearen pipilla edo kuskua, orri leortua, mendi-gaiñeak eta aranak, olatuaren erpin apurtua eta ondartzan sortzen dauan aparra, biziaren tanborilla...orra or eragin esku-tuak, ziurrak, bizi-biziak, mundua ta bizia daroezan eragiñak, orreik darabillez mundua, bizia ta eriotza, egun-sentia ta illuntzea, itxartzea ta atsedena.

Ez dago tan-tanbako erririk, ez dago bere zarata berezia ez dauan jakintzarik. Gorputzak eta gogoak euren dei-zaratak daukez. Ez dago eragiñik ez dauan bizirik.

Isillean dabez euren tan-tanak gorputzak eta gogoak.

Poza ta goibeltasuna, bizitasuna ta asperraldia, beroa ta itzitasuna, urreratze ariña ta urrintze albortueziña, lupetza ta espiritua, sinismena ta biozkapena, maitasuna ta oztasuna,...

Ezin jakin zergaitik diran baiña ba-dira guztion biziikasiak.

Eta bizitza onek dakarren ikasian, ortxe dago bizia.

Gora ta bera, arin eta astiro, tan-tanak eskatzen dauanean arin egin bearra, tintina astiro doanean itxaroten jakin-bearra...baiña beti biotzaren taupadea, izadiaren takadea, tan-tanaren igidura...oreik dira inditarrak agertu dauskuzan ondoren egokiak.



### IPUIN-SARIKETA (BILBAO'KO UDALAREN BABESPEAN)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k, urte guztietan lez aurten be, ipuin sariketea iragarten dau, oiñarri-arauak oneik dirala:

—Ipuiñak euskeraz eta erriak erabilten dauan euskalkia erabilliaz idatziak izan bearko dabe eta idazkerea, EUSKERAZAINTZA'k argitaratua eta ZER aldizkarian erabilten dana.

—Ipuiñak asmatu-koak edo errian batuak izango dira. ez idatzita dagozanak edo itzulpenak.

—Luzeera iru orrialdetik lau orrialdera, idazkiñez idatzita eta bitarte bi dirala. Saria irabazten dabenak ZER'en argitaratuko dira.

Saririk irabazten ez dabenak be bai ipuiñaren barrenean idazleak baimena emoten dauanean.

—Azillaren azkenerako EUSKERAZALEAK ALKARTEAren etxean (Bilbao'ko Colon de Larreategi, 14, 2.º eskoia) egon bear dabe.

Abenduaren azkenerako emongo da maikoen erabagia eta ZER'en agertuko da. Urterillean, baita DEIA Egunkarian be al bait lasterren.

—Sariak lau izango dira: 1.º 50.000 pezeta.

2.º 40.000 pezeta.

3.º 30.000 pezeta.

4.º 20.000 pezeta.

—Ipuiñak izen ordeagaz bialdu eta karta-azal txiki baten barruan izen-ordea ta izena.

LIARRA: Ipuiñak ekarteko epea abenduaren azkenera arte luzatzen da.

EUSKERAZALEAK

---

# UMEAK MUNDUAN

---

## UMEEN EGOEREA

Gaurko gure munduan larria da umeen arazoa.

Milloiak dira jaio-orduko ilten dabezenak, milloiak txiki-txikitatik ikastolara joan bear leukenean, lank gogorrenak egitera beartuta bizi dirarak, egunero ilten dabez, Brasil'en esaterako, kale gorrian bizi izatera beartuta dagozenak kuntza-edo seksu gozabiderako erabilliak diranak asko eta asko dira, zenbatu-eziñeko kopuruak gosez eta egoera errukarrian bizi diranak, millak izkilluak artuta ta guda egitera beartzen dabezenak. Zelako deabrukeriak egiten diran umeen kontura munduan!

Baiña ba-dira umeen aide lan egiten daben gizon eta emakume txalogarriak be. Oneik gogoratu daiguzan gaur.

## KALEAN LARRI

AXE deritxon egitasmo bat gogoratuko dogu. Bahia'ko Salvador'en gagoz. Areto aundi baten. Aurrean izki aundiz abeslari baten esaldi au agertzen da: "Norriak argi agertzeko egiñak dira eta ez goseak ilteko "

1990n. urtean asita, laterriarena ez dan erakunde edo ONG batek batzen dauz an millak umeak kaletik batuta.

Edivaldo Bonbim dau izena olako ume batek: Barrekari dago argazkia egiten dautsagun artean bere txabola apalaren aurrean. Ondartzako are-gaiñean itxas-ontzien ondakiñak, egurrak, eun-zatiak eta plastikuzko saski-ondakiñak agiri dira. Txabola-aurrean bera eta bere neska laguna beste bikote bat be bai, bakarrik dagoan beste laguntxu bat eta txakurtxu txeratsu bat.

Edivaldi 17 urtekoa da eta ille batzuk dira etxetik iges egin ebal. An itzi eban, etxera dirurik ekarten ez eban bere aita-ordea.

Etxetik urten eban ezker, eskean ibilli da, lapurreta txikiak be sarritan egin bear izan dauz, egunik onenak izan dauzanean izotza edo izparringiak saltzen ibilli da, sarritan aurrean erabilli dabe poliziak...baiña oraindiño bizi da, ondo kostata baiña bizi. Au ez da erreza, egunero bost ume ilten dabez Brasil'en poliziak edo polizi-antzeakoak.

\* \* \*

## EKINTZA BAT

Baiña oraintxe itziko dau Edivaldo'k kale-bizitza larri ori: AXE'ren etxera sartuko da eta antxe aurkituko dauz bere antzeko lagunak. Erakunde onek dauan lan-ikastola baten ikasiko dau lan egiten orretarako diran ola egokietan. Ingi erabilliak egokitzen ikasiko dau, eta, ori baiño bearragoa dana, gizona izateko gertatuko da. AXE izena daroan bus bat margotu dau.

Bear ba'da berak ez dau jakingo, baiña Kaiser izena dauan italiar bat da bus orren gidari. Italiar au sendoa, begi urdin eta ule zuridun gizona da. Bizi-bizia gaztea izan ez arren, Brasil'en Unicef erakundeak dauan ordezkaria. Kaiser onek liburuz eta zurezko ikusgaiz beterik dagon gela baten egiten dau lan. Inguruko gauza guzti orreik erlejiño-kutsu aundikoak dira. Leio aunditzar batzutatik datorko itxasoko aize biguna ugari.

Etxe aretan bete bearko dauzan arauak azaldu dauzoz Kaiser'ek amar bat minutoko alkar-izketan: "Nai doguna zuen almenak bizkortzea eta gero zuen ametsak beteteko aukerak eskintzea da " .

\*\*\*

## LAGUNTZAK

Erakunde onek egin dauan lana egiteko, laterrietako ta laterri-arteko erakundeak emon dautsoe laguntza eta elburu ori lortzeko bideak artu al izan dira: Kaleko ume izan diranak ingi erabillia egokitzen ikasiko dabe, burdiña erabilten be bai, eta orregaz batera, jakintzako eta erti-bideko lanak: eresa, dantza, zirkua ta abar. Ikas-laguntzak dagoz joan-etorriak eta jana ordaindu al izateko.

AXE egitasmoa dana pozezko ametsez beterik dago, alkar-bizitza, jokabide zuzena, eder-bidea ta olakoak ondo zaintzen dira. Kaiser'en ustez, edertia ta jakintza ez dira ezibiderako beste barik, ezibidea bera dira. Txiroak be badauke edertasunaren mundura sartzeko eskubidea. "Guk ezer ez daukenetzat, gauzarik onenak nai doguz", diño.

\* \* \*

**BESTE ATAL BAT**

AXE'ren antzeko egitasmoa da ERE deritxona be. AXE'ren atal bat dala dirudi.

Lanbideak irakasteko ikastolak ipiñi dabez, batez be jakintza ta ertiarloan: Eresa, dantzea, antzerkia, zirkua, balet eta olakoak be irakasten dabez.

18 urte bete arte ikasten dabe neskak naiz mutillak ikastola orreitan.

Lanbide bat ikastea baiño beiñago da etxe orreitan gezteen almenak argitaratzea: ikusi dagiela aundi egiteko aukerea daukela, asmamenak ez daukala mugarik, bizi-indarra milla eratarata agertu leitekela, etxe aretan naiz kanpoan euren nortasuna osotzeko ta agertzeko gai dirala.

\*\*\*

**POZA**

Irakasleak poz-pezik ikusi doguz. Etorten jakezan ume ta gazteen akatsak ikusi ondoren, euren artean makalena dan batek, lengo bere bizieratik urteteko gura agertu dau eta onen taldekoak be barruko almen eder asko agertu dabez.

Orixe da gure elburua, euren barru-bizia bizkortu, alkarregaz lan egiteko eratu, batek besteari laguntzeko beti gertu egon daitezela, euren burua aintzat artzen ikasi dagiela.

Urtero milla ume dira egitarau onetara sartzen diranak. Kanean bertan asten dira eurakaz artu-emonak. Lenengo euren uste ona lortu bear da, gero euren arazoak zeintzuk diran entzun eta ikasi, euren bizi-baldintza gogorak kontuan artu.

Orretarako iru urrats emoten dabez: lenengo eurak ezagutu, batez be jolasen bidez, kalekoen antzik ez dauken egitasmoak onartzen ikasi, gero alfabetatzea, ikasbidea. Elburu nagusia au da: Umea bere etxera biurtu daitela eta sendi ta alkarte-bizitzara oso-osoan sartu.

Orretarako astiro egin bear da lana, illeetan jarraitu lan ori, eta ez aitzu guztiakaz ezin lortu izaten dala elburu eder ori.

Beste laguntza batzuk be eskintzen dira ikastegi orreitan.

\*\*\*

**LAGUNTZAK**

Umeen alde jokatzeko lege-gizonen talde bat dago. Onein ardurea izaten da kaleko neskaxu ta mutilak euren aurka diran larkerietatik zaintzea.

Sendientzat laguntza bat dago: Umeentzat famili-giro bat billatzen dabe oneik. Ez da sendi ori beti izaten umeen odol bereko sendia.

Sendi orregaz umeen eziketarako egitasmo bat gertatzen da.

Olako sendia aurkitu ezin danean, laguntza emoten jake talde txiki batzuk alkartu eta eurentzat etxe bat aurkitu dagien.

Lantegiakaz itunak be egiten dira, ezibide ori bete daben gazteak artu dagiezan

Osasun-arazoai begiratzeko ardatz-etxe bat be ba-dago.

Amaitzeko, ara zer diñoen ikastegi orretako ezitzailleak: "Eziña... orreik ez dauke urtenbiderik...Olako esaldirik ez dago gure iztegian eta jokabidean. Umea ez da arazoa iñoz be. Umea urtebide bat da. Arazoa geu gara, geu, elduak garanak, oraindiño eurak zelan zaindu ikasi ez dogulako .

**OLAZAR'tar Martin'ek**


**KALKUTAKO TERESE AMA**

Ainbesteko miñak  
gosez eta erioz  
sortu dira lurrez;  
zergaitik samindu da  
Jainkoaren erria  
ainbesteko lorrez...  
\*\*\*

Zerk zapaldu dau lurra  
nork iraindu bizia  
bartzartuz Jainko itza?  
errukia nai eban  
ederragoa izan dedin  
gizonen bizitza.  
\*\*\*

Nire bizitz guztia  
zugandik artu neban  
Jaungoiko Altsua;  
nire izate oro  
legenardun artean  
zu otseintzea da.

**PAULIN**



**EIJSMIITZZLETK**

Colón de Larreategi, 14 - 2.ª dcha.  
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea

## BAT GATOK EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konprometzat  
artuten dogu, geure erri onen  
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik  
lagunduten deutsegu gogo osoz,  
geure nortasun berezia indartuten  
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten  
deutsagu, kultur adierazpenen  
artean, gure ezaugarririk gorena  
dan euskerearen garapenari.

---

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

**BBK**  
Bilbao Bizkaia Kutxa

200 pezeta

ISSN: 1132 - 1350  
Lege gordailua: BI-1452-85  
FLASH COMPOSITION, S.L. - BILBAO